



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2019eko URRIAREN 15ean OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko urriaren 15ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 17.00etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Concepcion Soria Legua Zubillaga
Unai Sorarrain Urruzola
Jose M^a Aranzabe Urruzola

Bere ezin etorria azaltzen du: Guillermo Jesus Otegi, Shrabani Aranzabe Pita
eta Koldobika Jauregi Zinkunegi.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. 2019ko azaroaren 10ean egingo diren Gorte Nagusietarako Hauteskundeetan mahaikideak izendatzeko zozketa.**
- 2. 2020 urterako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala bada.**
- 3. Mozioak**

LEHEN PUNTUA

2019KO AZAROAREN 10ean EGINGO DIREN GORTE NAGUSIETAKO HAUTESKUNDEETAN MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA

Ikusirik datorren azaroaren 10ean Gorte Nagusietako Hauteskundeak ospatuko direla eta mahaikideen izendatze zozketa burutu behar dela, zozketa CONOCE aplikazio sistemaren bidez egingo delarik.

Izendatze zozketari hasera ematen dio Alkate jaunak, ondoren aipatzen diren mahaikideak izendatzen direlarik:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENDAKARIA: OLATZ MATEOS CALERO

1. ORDEZKOA: IÑAKI OTEIZA GARCIANDIA
2. ORDEZKOA: NAIARA IRIZAR ERAUNCETAMURGUIL

1. BOKALA: ALVARO MARTINEZ BURGOS

1. ORDEZKOA: IDOIA URRUZOLA ZURIARRAIN
2. ORDEZKOA: ARGIA BAREA DELGADO

2. BOKALA: ARKAITZ GARAIBURU ARSUAGA

1. ORDEZKOA: IKER OLASAGASTI EIZAGUIRRE
2. ORDEZKOA: JON PELLEJERO BELAMENDIA

BIGARREN PUNTUA

2020 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2020 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

1. ZERGAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Bereizten dira:

-Hiri Ondasun Higiezin Gaineke Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo terziarioan: Tipoa % 0,04 - % 0,6 bitartekoa izango da. **Egun indarrean dagoen karga tasa % 0,198 koa da. Proposamena 0,2-ra igotzea.**

-Gainerako hiri ondasun higieziinei aplikagarri zaien karga tasa: Tipoa % 0,04 0,4 % bitartekoa izango da. **Egun indarrean dagoen karga tasa % 0,198 koa da. Proposamena 0,2-ra igotzea.**

-Landalur Ondasun Higiezin gaineke zergari aplikagarri zaion karga tasa: Tipoa 0,03 - %1,1 bitartekoa izango da. **Egun indarrean dagoen karga tasa %0,892 koa da. Proposamena 0,9-ra igotzea.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hobari hau mantentzea proposatzen da:

Alkizako Udalak egun indarrean dituen hobariak ondorengoak dira:

a)-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

Hobari hau aldatzea proposatzen da:

b)-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako, “instalazioa egin eta ondorengo 10 urteetan eskatzea egongo da hobari hau.”

2.EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA

Egun Udalak 1,70eko koefizientea aplikatzen du. **Proposamena mantentzea da.**

Egun Alkizako Udalak ez du hobaririk onartuta.

3.TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Udalak egun indarrean dituen kopuruak tarte bakoitzerako ondorengoak dira: % 1,68eko koefizientea aplikatzen du. **Proposamena 1,70-ra igotzea**

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. % 1,70

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
a) Turismoak	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	30,65
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	102,17
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	143,03
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	183,90
20 zaldi fiskaletik gorakoak	224,77
b) Autobusak.	-



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

21 plaza baino gutxiagokoak	141,61
21etik 50 plazara bitartekoak	201,70
50 plaza baino gehiagokoak	252,11
c) Kamioiak.	-
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	71,88
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	141,61
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	201,69
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	252,11
d) Traktoreak	-
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	30,04
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	47,20
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak / De más de 25 caballos fiscales	141,61
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak	-
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	30,04
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	47,20
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	141,61
f) Bestelako ibilgailuak	-
Zikomotoreak	7,51
125 cc-ra bitarteko motozikletak	7,51
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	12,87
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	25,75
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	51,50
1.000 cc-tik gorako motozikletak	103,00

UDALAK ONDORENGO HOBARIAK DITU ONESTUTA:

-Zerga-kuotaren %50eko hobaria bost plaza edo gehiago dituen ibilgailu turismo bakar baten alde, baldin eta horren titularra-indarrean dagoen legearen arabera-maila orokorreko edo maila bereziko familia udariko kidea bada, hurrenez hurren.

- Zerga-kuotaren %50eko hobaria, ibilgailu hibridoetan.

-Hobari hau %95ekoa izango da, motor osoa elektrikoa duten ibilgailuen kasuan.

4. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Udalak ondoren zerga-tipoak aplikatzen ditu egun:

1. Nekazaritza-Abeltzaintzako explotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetazko kostoaren % 2.,5. Onuradun izateko nekazaritza usatialekuen errolatze agiria aurkeztu beharko du.
Proposamena mantentzea da .
2. Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostoaren % 2,5
Proposamena mantentzea da.
3. Besteak: % 5.

Alkizako Udalak egun onartua duen hobariak ondorengoak dira:

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta

obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta

bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obraren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babesteko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

3.-%50eko hobaria, baldin eta eraikuntza instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira(zati horretan). Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

5. HIRILURREN BALIOEN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

- a) 1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6
- b) 10 urte artekoa % 3,4
- c) 15 urte artekoa % 3,1
- d) 20 urte artekoa % 2,9

Udalak egun % 6,5 eko karga tasa onartuta dauka. **Proposamena mantentzea da.**

2. TASAK

2.1. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

2.1.1. UR-HORNIDURAREN ZERBITZUA:

UR HORNIKETA	2019	2020
1.1. Etxez-etxeko ur hornidura		
-Gutxienerako 45m ³ , sei hilabetea	12,50€	12,50€
-Seihilabeteko 45 m ³ gutxieneratik aurrera	0,41€/m ³ bakoitza	0,43€/m ³ bakoitza
1.2. Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura		
-Gutxienerako 90m ³ , sei hilabetea	KENTZEA	KENDUTA
-Seihilabeteko 90 m ³ tik aurrera	KENTZEA	KENDUTA
1.3. Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:		
- M ³ bakoitza	0,88€	0,92€
1.4.- Mantenimendu kuota, sei hilabeteko	12,00€	15,00€
1.5.- Ondakinen isurketen kuota (Plazako auzoa)	Ur erreziboaren % 34a	Ur erreziboaren % 35a



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1.6.- Hobariak:
Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

2.1.1. Zabor bilketa zerbitzua

2.1.2.ZABOR BILKETA ZERBITZUA:

ZABORRAK	2019	2020
1.1.Etxez-etxeko bilketa, hileko	16,00€	16,00€
1.2. Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko	29,00€	29,00€

1.3. Hobariak:
Gizarte ongizateak proposatuak ikus I. eranskina.

2.1.3. DOKUMENTU ADMINISTRATIBOEN IGORPENA

	2019	2020
➤ Animalari arriskutxuen inskripzioa	30,00€	30,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

➤ Hirigintz kontsultak	70,00€	70,00€
➤ Segregazio baimenak 5 partzela arte	75,00€	75,00€
➤ Segregazio baimenak 6 partzelatik gora	150,00€	150,00€
➤ Lehen erabilera baimenak	100,00€	100,00€
➤ Lur mugimendu baimenak	0,40€/m3 bakoitza	0,40€/m3 bakoitza
➤ 60.000 € baino gutxiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea	35,00€	55,00€
➤ 60.000 € baino gehiagoko aurrekontua duten obretako lizentzien izapidetzea	55,00€	75,00€
➤ Iharduera baimenak:		
- Klasifikatutako jarduera	150,00€	150,00€
- Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa	80,00€	80,00€
➤ Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena	Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200	Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren % 200

2.1.4.DON JUANENAKO KIROL GELAREN ERABILPENA:

	2019	2020
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: urteko bazkidetza	60,00€	60,00€
➤ Don Juanena etxeko kirol gela: hiru hileko bazkidetza	20,00€	20,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

➤ Don Juanena etxeko dirol gela: hileko bazkidetza	10,00€	10,00€
➤ Don Juanena etxeko dirol gela: eguneko tasa	2,00€	2,00€

2.1.5.FAGUS INTERPRETAZIO ZENTRURA BISITAK:

	2020
➤ ZENTRURA BISITA GIDATUAK+ Ibilbidea	4,00€/ Pertsonako:12 urtetik gorakoentzat
➤ ZENTRURA BISITA GIDATUAK+ Ibilbidea	Ikastetxeak: 3,00€/hour bakoitza
➤ ZENTRURA BISITA GIDATUAK+ Ibilbidea	Alkizarrentzat dohainik

2.1.6. BUZOIETAKO GILTZAREN KOPIA ETA ZERRAILA ALDATZEA: 7€

2.1.7 HILERRIKO ZERBITZUENGATIK TASA:

	2019	2020
➤ OHIKO NITXOAK		
Ehorzeta eta 15 urteko konzesioa	200€+ marmola grabatu gabe	200€+ marmola grabatu gabe
➤ KOLUNBARI NITXO TXIKIAK		
Ehorzketa eta 15 urteko konzesioa	200€+ marmola grabatu gabe	200€+ marmola grabatu gabe
➤ GORPUTZAK ATERATZEA		
Borondatezkoa edo lurretik	75,00€	200,00€

**2.2.UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORUAN, ZORUPEAN EDO
HEGALDURAN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU
BEREZIAK EGITEAGATIKO TASA**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- HORNIDURA ETA TELEKOMUNIKAZIO ENPRESAK % 1,50.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2019ko urriaren 10ean egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2020 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

LAUGARRENA.- 2020 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

2020 EKITALDIRAKO ONDORENGO ZERGA EGUTEGIA FINKATZEA:

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2020 urteko otsailaren 3tik martxoaren 3arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2020 urteko maiatzaren 4tik uztailaren 6 arte.

3.- URA TASA:

1. sei hilabetea: 2020 urteko irailaren 1tik azaroaren 2ra bitartean.
2. sei hilabetea: 2021 urteko otsailaren 3tik apirilaren 6ra bitartean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

4.- ZABORREN TASA:

- 1.seihilabetea: 2020 urteko uztailaren 1etik irailaren 1era bitartean.
- 2.seihilabetea: 2021 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 3ra bitartean.

HIRUGARREN PUNTUA **MOZIOAK**

Ondoren, Alkate-Lehendakariak aurkeztutako mozioaren berri ematen du:

“Alkizako udal batzak Espainiako Auzitegi Gorenak 20907/2017 Auzi Bereziari buruz, hots, Kataluniako prozesu subiranistari kontrako auziari buruz, urriaren 14an eman duen epaiaren gainean kontsiderazio hauek egin nahi ditu:

1. Gure elkertasunik zintzoena adierazten diegu kondenatuei eta beren familiei uste baitugu epaia neurrigabekoa dela.
2. Auzitegiak epaia egiteko momentuan desobedientzia zibila sedizio bihurtzeko unean baliatu dituen argudioek, hala nola, “*desobediencia tumultuosa, colectiva y acompañada de resistencia y fuerza*” edo “*El derecho a la protesta no puede mutar en un exótico derecho al impedimento físico a los agentes de autoridad a dar cumplimiento a un mandato judicial*”, herritarren oinarriko eskubide demokratikoak eta zibilak arriskuan jartzen dituztela uste dugu.
3. Kataluniako auziaren konponbidea soil-soilik politikoa da eta ez judiziala. Auzi politikoak bideratzeko legeak ez du kortse aldaezina izan behar. Elkarrizketa zintzoa eta herritarrei erabakitzeko eskubidea ematea da horrelako auzia biratzeko modurik eraginkorrenak, Quebec-eko eta Eskoziako adibideak lekuko.

Gogoeta honen berri herritarrei bando bidez emango zaie eta bestelako interesatuei ere jakinaraziko zaie”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkate-Lehendakariak aurkeztutako mozioa bere osotasunean onestea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 18.20etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiak



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

I. Eranskinak

2020KO UR ETA ZABORREN TASEN HOBARIEN TAULA/TABLA PARA EL EJERCICIO 2020 DE BONIFICACION DE TASAS DE AGUAS Y BASURAS

Bi ezaugarri hartzen ditugu kontuan/ Se tienen en cuenta dos conceptos:

- Familiaren kide kopurua, hots, etxean bizi diren pertsona kopurua (ezkerreko zutabea)/Número de miembros de la unidad familiar (tabla de la izquierda)
- Familia osatzen duten kide guztien hileko dirusarrerak, indarrean dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata, oinarri, hartzen delarik/ Ingresos económicos mensuales de todos los miembros de la Unidad Familiar, tomando como base, el Salario Mínimo Interprofesional vigente.

Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz							
Nivel de sueldo, Comparando con el SALARIO MINIMO INTERPROFESIONAL							
	LGS edo < SMI .o <	LGS + % 10 SMI.+% 10	LGS +% 20 SMI + % 20	LGS +% 30 SMI + % 30	LGS +% 40 SMI + % 40	LGS + % 50 SMI + % 50	LGS + % 60 SMI + % 60
1-2	%100	%75	%50	%25	-----	-----	-----
3	%100	%100	%75	%50	%25	-----	-----
4	%100	%100	%100	%75	%50	%25	-----
5	%100	%100	%100	%100	%75	%50	%25
6	%100	%100	%100	%100	%100	%75	%50
7	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%75
8 edo +	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

L.G.S / S.M.I Urtero finkatzen du Madrilgo Gobernuak

- D.B.E. EDO G.L.L KOBRATU ETA KRITERIO HAUEN BARRUAN EZ DIREN KASUAK BANAKA AZTERTUKO DIRA/- Si cobra R.G.I. O AES, los no contemplados dentro de estas categorías se estudiarán caso por caso.
- KONTSUMO MIN = 45M³ (semestral) / CONSUMO MINIMO 45M³ (seis meses)

L.G.S.: Lanbidearteko gutxieneko soldata

S.M.I.: Salario minimo interprofesional

D.B.E.: Dirusarrerak bermatzeko errenta

R.G.I.: Renta de garantía de ingresos

G.L.L.: Gizarte Larriunetarako laguntzak

A.E.S.: Ayudas de emergencia social



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)